

PARTE HARTZEKO ESKAKIZUNAK

Prozeduran parte hartu nahi duten pertsonen baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea, Erkidegoko herritartasunaren erregistro-ziurtagiria edo Europar Batasuneko herritarraren senitartekoaren txartela lortu izana, edo Espainian bizitzeko edo bizitzeko eta lan egiteko indarrean dagoen baimen baten titularra izatea, atzerriartasunari eta immigrazioari buruzko Espainiako araudian ezarritakoaren arabera.
- b) Izena ematerako unean 18 urte beteta izatea, I. mailako kualifikazioei dagozkien konpetentzia-atalen kasuan, eta 20 urte II. eta III. mailetarako.
- c) Egiaztatu nahi diren konpetentzia profesionalekin lotutako lan-esperientzia eta/edo prestakuntza ez-formalak izatea:
 - Lan-esperientiaren kasuan. Gutxienez 3 urte justifikatzea, eskabidea aurkeztu aurreko azken 15 urteetan guztira gutxienez 2.000 orduz lan eginda. I. mailako konpetentzia-ataletarako, 2 urteko lan-esperientzia eskatuko da, eta gutxienez 1.200 orduz lan egin beharko da guztira.
 - Prestakuntza ez-formalaren kasuan. Gutxienez 300 ordu justifikatzea, eskaera aurkeztu aurreko azken 10 urteetan. I. mailako konpetentzia-ataletarako, gutxienez 200 ordu beharko dira. Egiaztatu nahi den konpetentzia-atalari lotutako prestakuntza-moduluek iraupen laburragoa badute, modulu horietan ezarritako orduak egiaztatu beharko dira.
- d) Baloratuko diren lanbide-gaitasuneko unitateek, beren izaeragatik, betekizun gehigarriak badituzte, baldintza horiek betetzen dituztela egiaztatzen duen agiria izatea.